



Basaburuko Udala
CIF P 3104900 J
31866-Jauntsarats (Nafarroa)

2024KO EKAINAREN 26AN BASABURUKO UDALAK **EGINDAKO OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA**

Jauntsaratsen (Basaburuan), 2024ko Ekainaren 26an, arratsaldeko 19:00etan, ondoren izendatzen diren jaun andereak bildu dira, ohiko bilkuran, legearen arabera bideratutako deialdia eginda, Santos Etxegia Oronoz alkatearen lehendakaritzapean, eta Lucia Beloqui Iriarte, udal idazkariaren laguntzarekin.

BERTARATUAK: Julen Beunza, Alaia Etayo, Micaela Elizalde eta Javier Auza.

BERTARATU EZ DIRENAK: M^a Mar Ansorena eta Iker Isiegas.

19:00etan lehendakariak bilkura hasitzat eman du eta gai zerrendan dauden gaiak lantzeari ekin zaio.

GAI ZERRENDAA

1.- Aurreko aktaren onespena.

Maiatzaren ohiko batzarreko akta eta maiatzaren 13ko ez ohiko aktak deialdiarekin batera bidali zirenak, bildutakoek aho batez onartzen dituzte biak.

2.- Alkate ebazpenak

-2024/68 alkate ebazpena onartuz, M^a Concepcion Maqueda Egureni, 9327KWZ matrikuladun autoaren zirkulazio zergaren salbuespena, 2020/22 Foru Leggearen 160 e 1º artikuluaaren arabera.

-2024/69 alkate ebazpena obra baimena emanaz Felix Beunza Larumberi Ihabengo 3. Poligonoko 14. Lursailean dagoen eraikinean egun dagoen leihoa zabalduz, atea irekitzeko.

- 2024/70 alkate ebazpena onartuz Montajes Electricos Erentxun enpresak aurkeztutako aurrekontua, mediku kontsultategiko barruko argiak aldatzeko 2.770,10 eurokoa BEZ kanpoko aurrekontua
- 2024/ 71 alkate ebazpena onartuz Oihanzabal ikastetxeak egindako eskaera eta hortaz 40 euro ikasleko laguntza ordaintzea, bai 2022-2023 ikasturterako, bai 2023-2024-rako, onartutako laguntza 1.880 eta 1.480 eurokoa izanik hurrenez hurren
- 2024/72 alkate ebazpena onartuz Gartzarongo 6 poligonoko 3 lursailean legeztatutako azienda ustiapenaren titularitatea aldatzea, Jesús M^a Jaunarena Ezcurra 15801560P NAN zenbakidunaren izenera pasatzeko, Ingurumena babesteko esku hartzeari buruzko Martxoaren 22ko 4/2005 foru legearen 49.4 artikuluari jarraiki.
- 2024/73 alkate ebazpena onartuz Mikel Tellechea Arreguiri 2024 urteko Zirkulazio zergaren dagokion zatiaren itzultzea 4301DTD matrikuladun autoa behin betiko baja emateagatik, itzuli beharreko kopurua 39,06 eurokoa izanen delarik.
- 2024/74 alkate ebazpena baimena emanaz Laura Blancori Aizarotzko Luzia Goñi kultur etxeko erabilera anitzetako gela erabiltzeko, jabeen elkargoaren bilera burutzeko, Ekainaren 16an, 10:3etatik aurrera
- 2024/75 alkate ebazpena onartuz Esther Lakastari 2024 urteko Zirkulazio zergaren dagokion zatiaren itzultzea 4768 FHK matrikuladun autoa behin betikoz baja emateagatik, itzuli beharreko kopurua 31,36 eurokoa izanen delarik.
- 2024/76 alkate ebazpena onartuz, Bautista Auza Aguirre 15727388B, NAN zenbakia duenari aparkatzeko elbarriendako txartela ematea.
- 2024/77 alkate ebazpena onartuz Onarzea, Joaquin Chocarro enpresak aurkeztutako 0167/2024 aurrekontua, Aizarotzko herrikoetxeko botilategiko enzimera aldatzeko, 511.03 eurokoa BEZ kanpo.

Bildutakoek ontzat ematen dituzte orain arte egindako alkate ebazpenak,

3.- Udal planaren aldaketa Arraratsko 14. Poligonoko 28. Lursailerako. Behin betiko onespena.

Alkateak azaltzen du nola udal planaren aldaketa xehetu honen bidez, Arraratsko 14. Poligonoko 28. Lursailean bigarren etxebizitza onartzen da eta horrekin lotuta ere aparkaleku berriak eta zesio guneak. Aparkaleku bat eta zesio gunea urbanizatua utzi behar dio udalari.

Hasierako onespena batzarrak apirilaren 24an eman zion eta maiatzaren 16ko NAO-n argitaratu zen. Hilabeteko epea jende aurrean egon ondoren behin betiko onespena ematea dagokio, 2017/1 FLD-aren 72 eta 77. Artikuloak jarraituz.

Hortaz bildutakoek aho batez, ondoren zehazten den erabakia hartzen dute:

- Behin betikoz onartzea Arrarastko 14. Poligonoko 28. Lursailerako udal planaren aldaketa xehetua, aipatutako lursailean bigarren etxebizitza bat eraberritzeko.
- Erabaki hau sustatzaileari adierazi eta Nafarroko Aldizkari Ofizialean argitaratua izan dadin agindu.

4.- Udabeko 2. Poligonoko 29. Lursailerako udal planaren aldaketa. Behin betiko onespena.

Udal planaren aldaketa honekin alkateak azaltzen duenez, zehazten dira hiri lursail honetan etxebizitza egiteko lerrokadurak, zesioak eta beste.. aurkeztutako testu bateratuan zehazten ditu udalak eskatutako guztiak. Lehen lursail hau kontzejua eta jabe pribatu batena zen eta autobusa itxoiteko markesina zuen barruan, saldu da eta jabe berriak etxebizitza egiteko plan aldaketa tramitatu behar izan du. Lursailaren itxidura paretaren altuera metrora egokitzen du Eraikin Araudiaren 60. Artikuluan arautzen den bezala, lagapen bezala kalea zabaltzeko lerro bat finkatzen du lursailaren luzeran eta ere zesio gune bezala finkatzen du egun, autobus geltokiak betetzen duen azalera.

Hortaz udalak 24/0015 baiezkotxoaren egin zuen eta martxoaren 27ko batzarrak hasiera batez onartu zuen, apirilaren 18ko NAO-n argitaratu zen erabaki hau eta maiatzaren 31a arteko epean jende aurrean egon da espedienteak alegazioak aurkezteko epea irekiaz.

2017/1 Lurralde Antolamenduari eta Hirigintzari Buruzko Foru Dekretu Legegilearen 77. Artikulua jarraituz behin betiko on espena ematea dagokio eta hortaz aho batez bildutakoek hartzen dute erabakia ondoren transkribatzen dena da:

- Behin betikoz onartzea udal planaren aldaketa Udabeko 1 poligonoko 29. Lursailerako eta erabaki hau sustatzaileari jakinarazi eta NAO-n argitaratua izan dadin agindu.

5.- Polikiroldegian eguzki plaken azpiegitura egiteko obraren esleipena.

Alkateak gogoratzen die bildutakoek proiektu honetarako 2023. Urtean eraginkortasun energetikorako diru laguntzen programan sartzeko eskaera egin zela baina ez zen laguntza onartu eta ondoren PDR programan sartu zen eta bertan bai onartu dutela laguntza ematea eta orain obraren esleipena egin behar da.

Onartutako gastua hau da:

35.263.03 euro obra egiteko eta 4.231.56 proiekturako. Laguntza 27.646 euroko da, eta proiektuak egin eta bukatzeko gehieneko epea 2025eko apirila da.

Obra egiteko bi aurrekontu eskatu dira, modu zuzenean esleitzeko aukera dagoelako aurrekontuaren arabera, 2018/2 Kontratu Publikoen Foru Legearen 81 artikulua jarraituz.

Lehen aurrekontua Elice Ingenieria enpresaren da eta obra 33143 eurotan BEZ kanpo egingo dutela adierazten dute. Bigarren aurrekontua NafarKoop enpresak aurkeztutako da 35886,12 eurokoa BEZ kanpo.

Bildutakoek aurrekontuan aztertuta eta 2018/2 Kontratu Publikoen Foru Legearen 81 artikulua jarraituz, erabaki hau hartu dute aho batez:

- **Elice Ingenieria enpresari esleitzea polikiroldegian eguzki plaken azpiegitura egiteko obraren esleipena, 33.143 euro BEZ kanpo aurrekontua onartuz.**
- **Erabaki hau Elice Ingenieria enpresari jakinarazi adieraziz obra, eskolaren ikasturte berria hasi baino lehen bukatu behar dela.**
- **Alkateari Elice Ingenieria enpresari kontratua sinatzeko ahalmena onartzen diote bildutakoek.**

6.- Garbiketa eta zerbitzu anitzetako lanpostuak. Egonkortze prozesurako mahaikideen izendapena.

Prozesuari hasiera emateko epaimahai osatzen dutenak izendatu behar dira bi prozesuetarako. Bildutakoek epai mahia horrela osatzeko erabakia hartzen dute:

Garbiketarako 2 lanpostu dira.

Lehendakaria Alaia Etayo

2 bokal Micaela Elizalde eta Iker Isiegas

Idazkaria Lucia Beloqui

Zerbitzu anitzetako lanpostua

Lehendakaria Santos Etxegia

2 bokal Micaela Elizalde eta Javier Auza

Idazkaria Lucia Beloqui

7.- Mozioak.

Ekainaren 28an ospatzen den LGTBIQ+ aldarrikapen egunaren inguruko mozioa irakurtzen du alkateak, ondoren transkribatzen dena:

“Ekainaren 28an, LGTBIQ+ harrotasunaren egunean, harro gaudela aldarrikatu nahi dugu. Harro gaude gure bizitzez, harro gure genealogiaz eta harro LGTBIQ+ mugimenduak

Komunikabide nagusien estigmatizazio saiakera ezberdinek zein manipulazioak, eskuin muturreko diskurtso intoleranteak eta gorroto jarrerak cisheteroarautik kanpo kokatzen diren bizitzak ezabatu nahi dituzten honetan, inoiz baino garrantzitsuagoa da nondik gatozen gogora ekartzea, ospatzea eta aldarrikatzea. Stonewalletik Euskal Herrira, milako bizipen, galera, aldarrikapen eta lorpen izan ditugu gaina oraindik egiteko

sako dugu. Eraso LGTBIQ+ fobikoen salaketen datuak esponentzialki egin dute gora azken urteetan, LGTBIQ+ pertsonen inbisibilizazio eta bazterketak presente jarraitzen du gure bizitzako arlo guztietan, diskurtso patologizatzaileak ugaritzen ari dira... ea ondorioz gure bizitzak arriskuan daude.

Honen guztiaren aurrean, antolatzea eta borrokatzea ezinbestekoa dugu. Gure kasuan, instituzioetatik politika publiko integral eta sendoak, perspektiba feministan oinarritutako zerbitzuak, babes kolektiborako eta autodefentsarako mekanismoak ezartzeko bideak... ezartzea ezinbestekoa dugu. Anekdotikoak diren politikak alde batera utzi, eta estrukturalak diren horiek erdigunean jartzeko garaia da. Horretan ari gara eta hori sustatzen jarraituko dugu askoren artean eta elkarlanean.

Horregatik guztiagatik udaletan konpromisoa hartzen dugu, gure herriko LGTBIQ+ pertsonen bizitzan gaineko diagnostikoak egin, eta honetan oinarritutako ekintza plana integralak abiatzeko, eta hortaz Berdintasun Atala duen Ultzamako Gizarte Zerbitzuetako Mankomunitateari helarazten diogu konpromisua hau gauzatua izan dadin pausoak eman ditzan.

Honetaz gain, dei egiten dugu Ekainaren 28aren bueltan antolatu diren ekimen eta mobilizazioetan parte hartzeko eta amaitzeko LGTBIQ+ pertsonen bizitzak egunerokotasunean bizigarriak izateko, lan eta borrokatzen ari diren kide eta kolektibo guztiak zoriondu nahi ditugu, harrotzeko moduko mugimendua osatzen dugulako.”

Bildutakoek aho batez onartzen dute irakurritako mozioa eta Ultzamako Gizarte Zerbitzuari jakinaraztea agintzen dute.

Gai zerrendatik kanpo beste gai bai dagoela aztergai aditzera ematen du alkateak, Aizarotzko kontzeju osatzeko baratzen lursailaren bereizketa baimena onartzea alde batetik eta horrekin lotuta, kontzejua osatuko duen inbentarioa berriro onartzea, baratzen lursaila sartuz bere azalera bereiztuarekin, hala eskatu baitzuten Tokiko Zuzendaritza Orokorretik. Bildutakoek hortaz aipatutako gai zerrenda sartzea onartzen dute aztertua izan dadin.

Aizarotzko 10. Poligonoko 32. Lursailerako bereizketa baimena.

Alkateak azaltzen du kontzejua eratzekeo prozesuan erabaki zela kontzejuari aipatutako lursailetik, baratzak osatzen zuten azalera eta biltegia ematea bere ondasun zerrendan sartuz. Hori egikaritzeko lehenik 32. Lursailetik eremu hori, hots 17.770 m2 bereizi behar ziren. Bereizketa baimena gauzatzeko udal arkitektoak baiezkotxoena egin du eta planoazalera horrekin, bereizketa baimenaren ondorioz aipatutako azalerarekin lursail bereiztu bat sortuko da, baratzak eta biltegia barne dituenaz, hori kontzejuari emango zaio eta 32. Lursailleko m2-rekin geldituko da eta udalarena jarraituko du izaten. Udal arkitektoaren baiezkotxoenez gain, Lurralde Aberastasun Zerbitzuko baiezkotxoena jaso du bereizketa baimenak hortaz azkeneko pausoa da baimena batzarrak onartza. Hortaz bildutakoek aho batez ondoren zehazten den erabakia hartzen dute:

- Onartzea Aizarotzko 10. Poligonoko 32. Lursailetik 17.718,70 m2 bereiztea lursail berria sortuz eta hortaz 32. Lursaila **786.620,92** m2-rekin gelditzea.

Aizarotzko kontzeju izateko ondasunen inbentarioaren aldaketa onartzea.

Alkateak lehen aipatu bezala, Aizarotzko 10. Poligonoko 32. Lursailaren bereizketa onartu ondoren, baratzak eta biltegia osatzen duten lursail berria inbentarioa sartu eta berriro onartzea eskatu du Tokiko Administrazioako Zuzendaritza Orokorrak. Hortaz bildutakoek aho batez onartzen dute Aizarotzko kontzeju izateko inbentarioa, honako ondasunez osatua dagoelarik:

Ondasun higiezinak.

- Orubea Aizarotzeko Igoabide kaleko 1ean dago. 940 m² ditu, eta honako mugakide hauek ditu: iparraldean, Aizarotzeko 46. partzela; ekialdean, NA 4351 errepidea; mendebaldean, Aizarotzeko 32. partzela komunala; eta hegoaldean, bide publikoa. Aizarotzeko 10. poligonoko 45. partzela da. Higiezin horren balioa, katastroaren arabera, 20.673,62 eurokoa da.

- Aizarotzeko Igoabide kaleko 3. zenbakian dagoen orubeak 591 m² ditu, eta honako mugakide hauek ditu: iparraldean, Aizarotzeko 10. poligonoko 47. partzela; ekialdean, NA 4351 errepidea; mendebaldean, Aizarotzeko 32. partzela komunala; eta hegoaldean, Aizarotzeko 10. poligonoko 45. partzela. Aizarotzeko 10. poligonoko 45. partzela da. Higiezin horren balioa, katastroaren arabera, 12.993,64 eurokoa da.

- Lucia Goñi Kultur Etxea izeneko eraikina. Aizarotzeko 10. poligonoko 51. partzela da. 351.07 m² ditu, eta horien barruan bi solairuko eraikin bat dago. Beheko solairuan taberna-jatetxea dago, eta lehenengo solairuan erabilera anitzeko aretoa eta lokal bat. Eraikinari atxikita arkupe itxi bat eta zoladura eta terraza daude.

Higiezin horren balioa, katastroaren arabera, 125.338 eurokoa da.

Higiezinak, erpin guztietan, bide publikoa du mugakide.

- Frontoiak 642.33 m²-ko azalera du, eta Aizarotzeko 10. poligonoko 52. partzelari dagokio. Mugakideak: iparraldean, hegoaldean eta ekialdean, bide publikoa; eta mendebaldean, Aizarotzeko 10. poligonoko 32. herri-partzela. Katastroko datuen arabera, 259.208,01 euroko balioa du inbentarioaren kargura.

- Orubea Aizarotzeko Mendialde karrika kalean dago, Aizarotzeko 10. poligonoko 53. partzelarekin bat dator eta 477 m²-ko azalera du. Mugakideak: iparraldean, Mendialdea kalea; mendebaldean, NA 4351 errepidea; eta hegoaldean eta ekialdean, Aizarotzeko 10. poligonoko 25. partzela. Katastroko datuen arabera, 10.492,68 euroko balio ekonomikoa du.

- Aizarotzeko Mendialde karrika kalean dagoen orubea, 565 m²-ko azalera duena. Aizarotzeko 10. poligonoko 67. partzela da. Mugakideak: mendebaldean, Mendialde karrika; hegoaldean, 66. partzela; eta gainerako konfrontazioetan, bidezidor publikoen sarea. Katastroko datuen arabera, orube horrek 11.871,72 euroko balioa du.

- Aizarotzeko Olaondo kalean dagoen orubeak 4182 m²-ko azalera du, eta 92.011,04 euroko katastro-balioa. Aizarotzeko 10. poligonoko 75. partzela da.

Lursailaren iparraldeko eta ekialdeko mugak Aizarotzeko 10. poligonoko 25. lursailari dagozkio, mendebaldean NA 4351 errepideari eta hegoaldean Olaondo kaleari.

- Aizarotzeko 10. poligonoko 32. lursailean dagoen biltegia. 515 m²-ko azalera du. Biltegi hori baratze eremu baten barruan dago, eta ondasun-inbentarioari atxikiko zaio. Baratze eremu horrek 17.718,70 m²-ko azalera hartzen du, Aizarotzeko 10. poligonoko 32. partzelatik bereiztearen ondorioz. Lurzati horren balioa, eraikina barne, 10724,40 eurokoa da.

A.

Eskubide errealak.

Ez dago.

Altzari historikoak, artistikoak edo balio ekonomiko handikoak.

Ez dago

Korporazioaren balore higigarriak, kredituak eta eskubide pertsonalak.

Ez dago
Ibilgailuak.
Ez dago
Abereak.
Ez dago
Aurreko enuntziatuetan sartzen ez diren altzariak.
Ez dago
Ondasun eta eskubide bihurtgarriak.
Ez dago

Bildutakoek hortaz aho batez onartzen dute Aizarotzko kontzeju eratzeko ondaasunen inbentarioa eta erabaki hau Tokiko Administrazioako Zuzendaritza Orokorrari helaraztea agintzen dute.

Bienes Inmuebles.

- Solar situado en C/ Igoabide 1 de Aizarotz, consta de 940 m2 y linda al norte con parcela 46 de Aizarotz, al este con carretera NA 4351, al oeste con parcela comunal 32 de Aizarotz y al sur con vial público. Se corresponde con la parcela 45 del polígono 10 de Aizarotz. El valor de esta inmueble según catastro asciende a 20.673,62 euros.

- Solar situado en C/ Igoabide 3 de Aizarotz, consta de 591 m2 y linda al norte con parcela 47 del polígono 10 de Aizarotz, al este con carretera NA 4351, al oeste con parcela comunal 32 de Aizarotz y al sur con parcela 45 del polígono 10 de Aizarotz. Se corresponde con la parcela 45 del polígono 10 de Aizarotz. El valor de esta inmueble según catastro asciende a 12.993,64 euros.

- Edificio denominado Lucia Goñi Kultur Etxea, Se corresponde con la parcela 51 del polígono 10 de Aizarotz. Consta de 351.07 m2 dentro de los cuales aparece un edificio de dos alturas en el que en planta baja se dispone espacio de bar-restaurant y en planta primera sala de usos múltiples y un local.

Adosado al edificio se encuentra un porche cerrado y zona de pavimento y terraza.

El valor de esta inmueble según catastro asciende a 125.338 euros. El inmueble linda en todos los vértices con vial público.

- Frontón que cuenta con una superficie de 642.33 m2,, se corresponde con la parcela 52 del polígono 10 de Aizarotz. Linda por norte, sur y este con vial público y al oeste con parcela comunal 32 del polígono 10 de Aizarotz. Su valor con cargo al inventario de acuerdo a los datos de catastro es de 259.208,01 euros.

- Solar situado en C/ Mendialde karrika de Aizarotz, se corresponde con la parcela 53 del polígono 10 de Aizarotz y consta de una superficie de 477 m2. Linda al Norte con calle Mendialdea, al oeste con carretera NA 4351 y al sur y este con parcela 25 del polígono 10 de Aizarotz. Su valor económico según los datos de catastro es de 10.492,68 euros.

- Solar situado en C/ Mendialde karrika de Aizarotz que cuenta con una superficie de 565 m2. Se corresponde con la parcela 67 del polígono 10 de Aizarotz, Linda al oeste

con Mendialde karrika, al sur con parcela 66 y en el resto de confrontaciones con red de senderos pública. Este solar tiene un valor según los datos de catastro de 11.871,72 euros.

-Solar situado en C/ Olaondo de Aizarotz, cuenta con una superficie de 4182 m2 y su valor catastral es de 92.011,04 euros. Se corresponde con la parcela 75 del polígono 10 de Aizarotz.

Los linderos de la parcela al norte y este corresponden con la parcela 25 del polígono 10 de Aizarotz, al oeste con carretera NA 4351 y al sur con calle Olaondo.

-Almacén situado en parcela 32 del polígono 10 de Aizarotz. Cuenta con una superficie de 515 m2. Dicho almacén está situado dentro de una zona de huertas que también pasará a adscribirse al inventario de bienes, ocupa este espacio de huertas una superficie de 17.718,70 m2 que resultan de la segregación de los mismos de la parcela 32 del polígono 10 de Aizarotz. El valor de dicha parcela incluyendo el edificio es de 10724,40 euros.

A.

Derechos reales.

No hay.

Muebles de carácter histórico, artístico o de considerable valor económico.

No hay

Valores mobiliarios, créditos y derechos, de carácter personal de la Corporación.

No hay

Vehículos.

No hay

Semovientes.

No hay

Muebles no comprendidos en los anteriores enunciados.

No hay

Bienes y Derechos Revertibles.

No hay

7. - Batzordeen informazioa.

Kultura Batzordea. Julen Beunzak ematen du informazioa.

Hurrengo urtean herriz herri egingo diren kultur zikloen antolaketekin jarraitzen du batzordea. Abuztuan perseiden bistartzeko ekimena antolatuko da, kontzejuei deia egingo zaie jakiteko nortzuk egongo liratekeen interesatuak, gauaz kaleko argiak itzali behar direlako.

Hezkuntza Batzordea. Alaia Etayok ematen du informazioa.

Ttikienako ikasturte bukaerako bilera burutu zen, hurrengo ikasturterako matrikula epea bukatu da eta 13 haur egin dute baina aurreikusten da ikasturtean 4 haur gehiago izatea.

Hezkuntza Departamentuak ez du onartu patioa berritzeko diru laguntza eta hortaz udaleko langile eta Ultzamako lan babestuekin egitea adostu da. Obra haiek uztailaren bukaera baino lehen egitea eskatuko zaio mankomunitatekoei, azkeneko aste horretan eta abuztuan ludoteka baitago. Udaleko zerbitzu anitzeko langilearekin kudeatuko dira lan hauek.

Udalbiltzaren bilera burutu zen Irurtzunen eta bertan Oin herri egitasmoa aurkeztu zuten. Zazpi kontzeptutan oinarritzen da proposatzen duten aisia-eredua, **aurren kultura** oinarri hartuta, haurrei benetan **parte hartzeko eta erabakitzeko** ahalmena ematea; eurek eraikitako aisia hezitzailea eta **euskaldunaren** bitartez, **aniztasunean berdinean eta parekide** izanez eta **ingurumen naturala** eta **ingurumen kulturala** zainduz, **komunitate-sarea eta auzolana** indartzea, eta pertsonen arteko harreman osasuntsu, justu eta asegarriak jostea. Nafarroak hainbat udal dira Oin herriren bazkide, horien artean, Lesaka, Baztan eta Etxarri.

Egitasmo honetan parte hartzeko udalak biztanleen arabera 500 euroko ekarpena egin beharko lukeela azaltzen du hezkuntza zinegotziak. Momentuz egitasmoan ez parte hartzea erabaki zuen Basaburuko egoera despopulazioarekin lotuta desberdina delako.

Hurrengo ikasturterako garraioa antolatzeko bilera pendiente dago Hezkuntza Departamentuan. Aurreikusten dira 18 erabiltzaile izatea eta bi autobus lerro eskatuko zaizkio departamenturi, bat Ultzamatik Askatasunara joateko eta bestea Irurtzundik, Donapea, Alaitz eta beste institutueta.

Berdintasun Batzordea. Micaela Elizalde ematen du informazioa.

Herrietako festen kanpaina abian dago eta Berdintasun Institutotik materiala ekarri dute banatu ahal izateko.

8.- Informazio orokorra:

Arte eta Kultura programa burutzeko 781 euroko laguntza jaso dela adierazten du alkateak.

Bestetik Mendialdeko aktibazio planaren azken bileran, kooperatiban sortzeko aukerak aztertu ziren.

2025. urterako PDR deialdirako udalak burutu nahi dituen proiektuen zerrenda osatzea eskatu dutela Cederna Garalurretik adierazi du alkateak eta Garapen Batzordean prestatuko da.

Cederna Garalurretik bultzatzen ari den biomasaren egitasmora kontzejuak gonbidatuko dira, beraiek dira mendien jabetasuna dutenak. Ezpala egiteko zentral bat Mendialdean jartzeko azterketa burutzen ari dira.

Etxebizitza kooperatiboak egiteko bilera burutu zen Irurtzunen. Etxebizitza Atalak bultzatu nahi duen egitasmoa da, Katalunian oso arrera ona izan duena. Egitasmo honen baitan udalek lurra zesio moduan eskaintzen diote kooperatibari eta beraiek obrak burutu. Etxebizitza komunitarioak dira eraikitzen direnak, sukalde eta beste guneak partekatzen dituzte bertan bizitzen direnak.

PSTD programak udalak bi proiektu dituela gogoratzen du alkateak, jada Cederna Garalurrek eta Nafar Gobernuak sinatu dute elkarlanerako hitzarmena eta uztailaren bukaerako aurreikusten dute udalekin sinatzea ere hitzarmena.

Sasturain etxeko beheko solairua egokitzeko proiektua uztailaren bigarren astean aurkeztu behar dute eta Nafar Gobernuari eskatu zaio dirulaguntzaren aurrerapenak, departamentutik hala egiteko adierazi dutelako.

Granjetan helbidea zenbakia adierazten duen kartela jartzeko dirulaguntza eskatuko da. Urriaren 12an Artzai Amerikarren eguna buruko da Berueten, zonaldea osatzen duten udalen babesarekin (Ultzama. Anue, Odieta, Lanz Imotz eta Basaburua).

Apeztegi berri dendako kudeatzaileek bukaera ordutegia aldatzeko jakinarazpena luzatu diote udalari. Gabetan ez da afaltzen jendea ibiltzen eta langile faltagatik afariak ez ematea erabaki dute eta hortaz 8etan itxiko da ostatua. Udan bai 9:30ak arte edukiko dute irekia baina afaririk eman gabe.

Aizarotzko ostatatuko errentariarekin hitzarmena sinatu da egun duen zorra epeka ordaintzeko.

9. Erregu-galderak

Ez dira egin.

Eta gai gehiago aztertzeko ez dagoenez 20:35 direnean bilera amaitutzat eman da eta idazkariak horrela izan dela ziurtatzen du.